

Lekua: Le Bayonne Hotela
(1 Avenue Jean Rostand, Baiona)

Ordua: 11etan. Sariak ematea eta koktela.

Sariak emango dituenak: Lorena Lopez de Lacalle.

Bazkaria: Hoteleko jatetxean. Prezioa: 26 €.

Erreserben berrespena apirilaren 12ra arte.

Harremanetan jartzeko: ✉ miren.urreiztieta@sfr.fr

☎ 06 86 72 34 61



alkartasuna
fundazioa



@alkartasun
info@alkartasunafundazioa.eus

www.alkartasunafundazioa.eus

5. EDIZIOA
**EUSKARA ETA
EUSKAL KULTURA
SUSTATZEAGATIKO SARIAK**
2017KO APIRILAK 22 • LE BAYONNE HOTELA



alkartasuna
fundazioa

Zazpirak bat dominarekin sarituak. Domina Nestor Basterretxea eskultorearen lana da



TXOMIN PEILLEN

Idazlea eta euskararen ikertzailea. Poesia, ipuin, eleberri, saiakera eta etnologia- eta filologia- lanen egilea. Igela aldizkariaren sortzaileetako bat.

Biologia eta geologia-ikasketak egin zituen Sorbonako Unibertsitatean. Irakaslea izan zen Parisko Lavoisier Lizeoan, Paueko Unibertsitateko Letren Fakultatean, non Euskal Ikasketei eta Pirinioetako Mitologiari buruzko doktorego-ikasketak antolatu zituen. Bordeleko Unibertsitatean Doktoratu zen, Anatomiaren euskal lexikoa. Morfologia eta semantika tesiarekin. Euskal hizkuntza eta literaturako irakaslea da Baiona-Ange-lu-Miarritzeko Diziplina Anitzeko fakultatean (Lapurdi). PEN klubeko kidea eta ohorezko presidentea. Euskaltzaina. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria.



MARTINE BISAUTA

Baionako alkatearen albokoa, garapen jasangarriaren eta hiri-estrategien arduraduna. Euskadiko Autonomia Erkidegoko lehendakariordea, trantsizio ekologiko eta energetikoaren eta hiri-aglomerazioaren arduraduna.

Batera herritar-plataformaren kide fundatzailea. *Batera* lurralde-elkargo espezifikoa, nekazaritza ganbera bat, euskararen koofizialtasuna eta Iparralderako unibertsitate bat errebindikatzen duen koletiboa da.



JEAN NOËL, "TXETX", ETCHEVERRY

Sindikalista, ekologista, kultura-sustatzailea eta bakezalea.

"*Euskal Herria Zuzenean*" Musika Festibalaren sortzailea, euskararen eta euskal kultura-ren defentsa eta garapenerako, eta bestalde, "*DEMO- Demokrazia Euskal Herriarentzat*" indarkeriarik gabeko desobedientzia zibilaren aldeko mugimenduaren bultzatzailea, erakundeek euskara errekonozitzeko, euskal hizkuntzak zerbitzu publikoetan presentzia izateko, euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko eta Pays Basque Departamentu baten sorkuntza eskatzeko.

"*Justizia klimatikoaren*" aldeko *Bizi!* eta ingurumenaren aldeko eta klima-aldaketaren aurkako *Alternatiba* mugimenduen eta nekazaritza jasangarria sustatzeko *Euskal Herriko Laborantza Ganbararen* sortzailea.

Manu Robles-Arangiz Institutuaren arduraduna izan da Ipar Euskal Herrian.



XEBAX CHRISTY

Informatika-ingeniarria Bordeleko Unibertsitatean.

2013an Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ezarri zen "*Eusko*" izeneko moneta sozial ez-espekulatiboaren sustatzaile izan den "*Euskal moneta*" Elkarteko presidenteordea.

Era berean, "*Euskokart*" txartelaren bultzatzaile izan da. Ordainketa-txartel hau duela gutxi sortu da, honako helburu hauekin: ekonomiaren birlokalizazioa bultzatzea, bertako produktuen erosketa sustatzea, lurraldean berrinbertitzea, aurrerapen soziala erraztea, ingurumena babestea eta euskara sustatzea.